

BARATZEKO GAITZ ETA IZURRI NAGUSIAK ETA NOLA AURRE EGIN MODU EKOLOGIKOAN

Baratzean ditugun arazoei aurre egiterako orduan, lehenik eta behin, arazoa zein motatakoa den jakin beharko dugu: intsektua ala onddoa ote den arazoaren arrazoa. Intsektuak direnean intsektizidak erabiliko ditugu eta fungizidak onddoek sortutako gaitza bada. Jakin behar da intsektizidek ez dutela onddoen kontrako inongo eraginik, ez eta ere fungizidek, intsektuen kontra.

Produktuak erosterakoan beti azpimarratu behar zaio saltzaileari produktu ekologikoa nahi dugula, oraindik ere askotan, ekologiko moduan saltzen baitituzte ekologiko ez direnak. Hori ziurtatzeko, normalean, ekologikoa den produktuak hori adierazten duen logotiporen bat edukiko du:



Produktu ekologikoak erabiltzerako orduan, kontutan eduki ez direla konbentzionalak bezain indartsuak, beraz, produktua patxadaz bota beharko dugu eta intsektua edo gaitza dagoen lekuan (hosto azpian, zirrikietan e.a.).

Edozein intsektizida erabili nahi dugunean, lehenengo ahulena dena erabiliko dugu, nahiz eta ekologikoa izan, intsektu onuragarriei ere kalte egin ahal baitie. Hark ez badu funtzionatzen indartsuago bat erabiliko dugu.

Barraskiloak eta bareak

Material/produktu hauek erabil ditzakegu, azaltzen den moduan:

- Arraultza oskolak txikituta bota landarea inguratuz.
- Kafe hondarrak.
- Errautsa (euria egiten duenean efektua galtzen du).
- Garagardoz beteriko edalontzia sartu lur azpian, bertara eror daitezten.
- *Ferramol* moduko produktu ekologiko ezberdinak daude salgai. Hauek fosfato ferrikoz eginak izan ohi dira eta kolore urdin berdexka izan ohi dute gehienek. ADI, konposizioan metaldehidoa duela jartzen badu, ez da ekologikoa! Normalean ez ekologikoek kolore urdin bizia izaten dute.
- *Tierra de diatomeas* deituriko hautsa, landareen inguruan zabalduta. Alga mikroskopikoen kanpo eskeleto kristalizatua da. Kristal horiek animalia hauen digestio aparatuan kalte egiten diete.

Intsektuak (zorriak, euli zuriak, e.a.) eta harrak (hostoetan aurkitzen ditugunak)

- Etxean eduki ohi dugun xaboi pastilla erabiliko dugu (*Txinbo, Lagarto...* motakoa). Uretan diluitu eta lainoztagailuarekin zabaldu (honek ez du balio harrentzako).
- Ozpina. Zati bat ozpin 10 zati uretan diluitu eta lainoztatu. Argi! Ez erabili behar dena baino ozpin kantitate gehiago, landarea erre baitezake (honek ere ez du balio harrentzako).
- Edozein intsektizida ekologiko. Normalean *piretrina* edo *neem*-a izaten dute konposizioan.
- *Tierra de diatomeas* deituriko hautsa, intsektuak dauden lekuan bota.

Lurrean aurkitzen ditugun harrak eta luhartzak

- Zahia, azukrea eta urarekin masa trinko bat egin behar da, eta honi, intsektizida komertzial bat botako diogu. Masa hau lurrean lurperatuko dugu harren kasuan, luhartzaren kasuan teila baten azpian jarriko dugu. Zahia eta azukreak erakarri egiten ditu eta jaten dutenean intsektizidak akabatzen ditu.

Oidioa

- Kalabaza, kalabazin, pepino, ilar e.a.-etan azaltzen den onddo zuri bat da oidioa. Normalean ez du kalte handiegirik egiten.
- Kalabaza, kalabazin eta pepinoetan, kalteturik dauden hostoak kentzen joaten bagara, normalean ez dugu inongo produkturen beharrik izango gaitzari aurre egiteko.
- Gaitzak gain hartu badigu bikarbonatoa erabili dezakegu. Litro bat ur, 3 koilarakada bikarbonato eta 2 koilarakada olio nahastu eta gaitza agertzen den tokietan eman.
- Azufre tratamendua ere erabili daiteke.

Mildiu eta tomatearen gorrina

- Gaitza ekiditeko hainbat gauza egin ditzakegu: ahalik eta gutxien ureztatu tomateak, ez inoiz hostoak busti ureztatzean, altsumak kimatu (beti egun lehorretan), euren artean distantzia nahiko utzi, e.a.
- Oraindik landareak gaitzik ez badu ere, ekaina erdialdetik aurrera, 15 egunean behin kobrea duen produktu ekologiko bat erabiliko dugu landarea ondo lainoztatuz (urarekin nahastuta hobe). Marka eta formatu ezberdin ugari daude, erosterakoan esan behar zaio saltzaileari kobre-dun produktu ekologiko bat nahi dugula.
- Landarea jada fruituekin dagoenean, beharrezkoa denean bakarrik botako dugu produktua, hau da, eguraldi epel eta hezeak datozenean. Produktuarekin lainoztatu aurretik, kolore gorria hartzen ari diren fruitu guztiak jasotzea komeni da.
- Gaitzak zurtina ere gorritu badu, labanarekin kalteturako kanpoko azala fin-fin kendu eta lainoztatzeko erabili dugun kobre produktu berdinarekin, urarekin nahastuz ore bat egin eta enplastu moduan jarri zaurian.
- 15 egunean behin, esnea edo gatzura urarekin nahastuta botatzea ere ongi etorriko zaio. Litro 1 esne 10 litro uretan nahastuta.

Usteldurak

- Orokorrean, landareren bat usteldurekin badugu, arazoa hezetasuna izango da. Landareen arteko espazioa zabaldu, aireztapena hobetu, gutxiago ureztatu eta hezetasuna gutxitzeko aldaketak egin.

PRINCIPALES ENFERMEDADES Y PLAGAS DE LA HUERTA Y CÓMO HACERLES FRENTE DE FORMA ECOLÓGICA

A la hora de hacer frente a los problemas que surgen en los cultivos, el primer paso consiste en saber de qué tipo de problema se trata, es decir, si el problema está causado por un insecto o por un hongo. Así, o bien utilizaremos un insecticida, en caso de insectos; o un fungicida, en caso de enfermedades causadas por hongos. Ni los insecticidas son eficaces con los hongos ni los fungicidas con los insectos.

A la hora de comprar los productos siempre hay que reseñar al vendedor que queremos un producto ecológico, ya que en muchos casos siguen vendiendo como ecológico aquello que no lo es. Para asegurarse de que se trata de un producto ecológico, hay que buscar en el envase algún logotipo que lo indique:



Hay que tener en cuenta que los productos ecológicos no son tan fuertes como los convencionales, de modo que, a la hora de utilizarlos, debemos aplicarlos con más precisión en las zonas afectadas por el insecto o por la enfermedad (debajo de las hojas, en ranuras de tallos, etc.).

Cuando vayamos a elegir un insecticida debemos probar primero el más débil, ya que, aunque sea ecológico podría afectar a insectos beneficiosos. En caso de que no funcione utilizaremos alguno más fuerte.

Caracoles y babosas

Podemos utilizar los siguientes productos y materiales para combatirlos de la forma en la que se detalla:

- Rodear la planta infestada con cáscara machacada de huevo.
- Restos de café.
- Ceniza (cuando llueve pierde su eficacia).
- Enterrar en el suelo un vaso lleno de cerveza, donde caerán las babosas.
- Existen diferentes productos ecológicos tipo *Ferramol*. Suelen ser fosfatos férricos y suelen tener un color azul verdoso. ¡Atención!... si en la composición aparece metaldehído, el producto no es ecológico. Normalmente los productos no ecológicos suelen tener un color azul intenso.
- Se puede extender *Tierra de diatomeas* alrededor de las plantas. Este producto es un polvo compuesto por esqueletos externos cristalizados de algas microscópicas. Los cristales dañan el aparato digestivo de estos animales.

Insectos (pulgón, mosca blanca, etc.) y orugas (que encontramos en las hojas)

- Diluir en agua una pastilla de jabón casero (tipo *Chimbo*, *Lagarto*, ...) y pulverizar (no es válido para tratar orugas).
- Diluir vinagre a razón de 1 parte de vinagre por 10 partes de agua y pulverizar. ¡Cuidado! No utilizar más cantidad de vinagre que el indicado, porque podría llegar a quemar la planta (tampoco es válido para tratar orugas).
- Insecticidas ecológicos. Generalmente incluyen piretrina o neem en su composición.
- Aplicar *Tierra de diatomeas* en el lugar donde se encuentran los insectos.

Gusanos de suelo y alacrán cebollero

- Hacer una masa compacta mezclando salvado, azúcar y agua, a la que añadiremos un insecticida comercial. Si el problema está causado por gusanos se debe enterrar esta masa en el suelo. Si el problema está causado por el alacrán cebollero se debe colocar la masa debajo de una teja en la superficie del suelo. El salvado y el azúcar actúan de cebo y al comerlo, el insecticida hará su efecto en los animales.

Oídio

- El oídio es un hongo blanco que ataca a la calabaza, calabacín, pepino, guisante, etc. Normalmente no produce daños excesivos.
- En calabaza, calabacín y pepino, si vamos eliminando las hojas afectadas no nos hará falta ningún producto para combatir la enfermedad.
- Si la enfermedad está muy avanzada podemos utilizar bicarbonato. Haremos una mezcla de 1 litro de agua, 3 cucharas de bicarbonato y 2 cucharadas de aceite y aplicaremos la mezcla en las partes afectadas.
- Se pueden usar también tratamientos a base de azufre.

Mildiu y roya del tomate

- Para evitar la aparición de la enfermedad podemos recurrir a diversas soluciones: regar las tomateras lo menos posible; evitar mojar las hojas cuando se riegan las plantas; podar los tallos axilares (siempre en días secos), dejar entre las tomateras una distancia suficiente, etc.
- Aunque las plantas no presenten síntomas de la enfermedad, a partir de mediados de junio se puede aplicar un producto ecológico a base de cobre cada 15 días, pulverizando bien la planta (mejor mezclado con agua). Hay muchas marcas y formatos diferentes, pero hay que recalcarle al comerciante que queremos un producto ecológico con cobre.
- Cuando las plantas estén ya con frutos sólo trataremos cuando sea necesario, es decir, con temperatura templada y humedad. Antes de pulverizar el tratamiento es conveniente recoger todos los frutos que estén tomando color.
- Si la enfermedad ha afectado a los tallos, conviene retirar la piel externa dañada con cuidado con la ayuda de un cuchillo. Mezclaremos con agua el mismo producto a base

de cobre que utilizamos para pulverizar, formando una pasta que se aplica en la herida, a modo de emplasto.

- También es beneficioso pulverizar las plantas cada 15 días con leche diluida (1 litro de leche por 10 litros de agua).

Putrefacciones

- Si aparecen putrefacciones en una planta, por lo general, son causadas por exceso de humedad. Para evitar el problema se debe ampliar el espacio entre plantas, mejorar la ventilación, regar menos y realizar los cambios necesarios para reducir la humedad.